



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**2018/2019 denboraldia**

## **7 ZK.DUN ZIRKULARRA**

### **GAZTEEN NAZIONAL LIGA**

Euskadiko Futbol Federakundeak, RFEF-eko ordezkarietzagatik, Gazteen Nazional Ligako 4. Multzoa lehiaketa antolatuko du 2019/20 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

#### **1. Parte hartuko duten klubak**

Amorebieta S.D., Antiguoko K.E. "B", Athletic Club "B", Aurrera de Vitoria C.D., Barakaldo C.F., Beasain S.D., Cultural Dep. Durango, Danok Bat Club "B"; Deusto S.D., Getxo C.D., Gernika S.D., Hernani C.D.; Real Sociedad de Fútbol "B", Santutxu F.C., Tolosa C.F. eta Vasconia C.D.

#### **2. Lehiaketa sistema**

Puntuetara eta itzuli bitan (hogeita hamar jardunalditan, guztira) egingo da lehiaketa, eta Espainiako Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak eta estatuko eremuko Gazte Lehiaketen arau erregulatzailak aplikatuko dira.

#### **3. Partiden data eta ordutegiak**

Lehen itzulia: irailaren 8, 15, 22 eta 29; urriaren 6, 13, 20 eta 27; azaroaren 3, 10, 17 eta 24; abenduaren 1, 8 eta 15.

Bigarren itzulia: abenduaren 22; urtarrilaren 12, 19 eta 26; otsailaren 2, 9, 16 eta 23; martxoaren 1, 8, 15, 22 eta 29; apirilaren 5, eta 19.

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte klub antolatzaileek, 15,30etik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe.

Esan ere ordutegi lerro bat jarri dela, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etarako bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubaren arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

#### **4. Sailkapen ondorioak**

Sailkapeneko 1. eta 2. amaitzen dutenak Ohorezko Gazteen Estatuko Ligara igoko dira.

Sailkapenean 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak Euskadiko Gazteen Ligara jaitsiko dira. Halaber, Gazteen Ohorezko Mailatik federazio honetako talderik jaitsiz gero, azken sailkapenean postu horien aurretxoan egondako taldeek, behar bestek, maila galduko dute. Egoera honek aipatutako mailan klubaren gehiegizkoa suposatzen duenean.

#### **5. Ordezpenak**

Partidetan, gehienez lau futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez bost balizko ordezeko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

#### **6. Entrenatzaileak**

Tituludun entrenatzailea izateko derrigortasuna gogoratzen da, gutxienez 2.maila edo aurreratu entrenatzaile diploma / UEFA A lizentzia edo kiroletako teknikari tituloa.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, entrenatzailea bere taldeak edozein txapelketetan parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

## **7. Delegatuak**

Delegatu bat gutxienez edukitzeko derrigortasuna gogoratzen da, bere lizentzia federatiboa tramitatuta.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, delegatua bere taldeak edozein txapelketatan parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

## **8. Arbitroak**

Epaile hirukotea. Gutxienez Hirugarren mailako arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

## **9. Diziplina Araudia**

Espainiako Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak 4. Multzoko Gazteen Nazional Ligako epaile bakarra eta Espainiako Federazioaren Apelazio Batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2019ko irailaren 3an.

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General